PRENTSA DOSSIERRA | DOSSIER DE PRENSA

**USTEKABE FANFARREA**
BITTOR SARASKETA 7, 3
20600 EIBAR (GIPUZKOA)
TLF: 649933512
ustekabe@gmail.com
www.ustekabe.com

---

# Bigarren Tradizio Saria lortu du Ustekabek Condomen

## Ustekabek "Gascon d'Argent" saria lortu Condom-eko Europako banda jaialdian

INFO+: 2 or

---

# Ustekabe vuelve de Condom con el segundo Premio Tradición

Ustekabe se hace con el premio "Gascon d'Argent" en el festival europeo de bandas de Condom

INF+: pag 5

# Bigarren Tradizio Saria lortu du Ustekabek Condomen

## Ustekabek “Gascon d’Argent” saria lortu Condom-eko Europako banda jaialdian

Ustekabe fanfarreak Condomeko (Armagnac, Frantzia) Banda Jaialdian parte hartu du asteburuan, eta ez da esku-hutsik itzuli. Izan ere, halako jaialdi batean parte hartzen zuen estreinako aldian, bigarren saria lortu zuen eskainitako ikuskizun tradizionalari esker.

Ustekabekoek dantza ikastaro azkarra egin behar izan dute ikuskizuna prestatzeko. Horretarako, Oier Araolazaren laguntza izan dute: “gure hasierako asmoa guk jo eta kanpoko dantzari batzuek dantza egitea zen, baina Oierri esker ikusi dugu guk geuk dantza xumeagoak egin genitzakeela, eta berak erakutsi dizkigu. Ez dakigu nola eskertu eman digun laguntza guztia”, eskertu dute Ustekabekoek. Hasitako ibilbide horrek etorkizunean ere proiekzioa izan dezakeela uste dute Ustekabekoek: “formatua berrikusi eta kalean egiteko egokitu dezakegu”, aurreratu dute.

Musikari gazteen esanetan, jaialdian parte hartzeak lan handia suposatu du eta horrek ondorio positiboak izango ditu kalean jarduterakoan ere. “Jaialdiko banda xumeetako bat izan gara. Umeen jaialditik kanpo, banda normalen artean, gazteena ezbairik gabe. Kide kopuru aldetik ere, 18 musikari eta hiru laguntzaile izan gara bertan, eta bazeuden 40 musikaritik gorako bandak, animatzaile askorekin. Guk, guztia, 21 pertsonaren artean egin dugu guztia. Gainera, lehen aldia izan da horrelako leku batean. Gauzak ondo egiten saiatu gara, eta esperientzia hori baliatzea zen garrantzitsuena. Baina, gainera, besapean saria ekarri dugu Eibarrera. Ezin gara alaiago egon”, nabarmendu dute.

Esker-hitzak izan ditu Xabier Oruesagasti presidente gazteak: “bene-benetan harro nago taldea osatzen dugun guztiotaz. Konpromiso handia hartu genuen duela hilabete batzuk eta jakin dugu serio egoten, egoerak hala eskatzen zuenean. Esperientzia honek erakutsi digu lanean jarraitzen badugu, zeresan handia izango dugula emateko. Orain, udarekin, gure lanerako denboraldi handiena datorrela, egindako lanaz gozatu ahal izango dugu”, azaldu du.

## Lau ikuskizun

Lau mikroikuskizun izan ziren, eta ondorengo piezak jo zituen Ustekabek:

- Tradizionala: “Potpurri Tradizionala” (hurrengo lerroetan doa azalpena).
- Musikalitatea: Manolete (pasodoblea) eta Pirates of the Caribean.
- Eszenatoki nagusia: I Will Survive, Mambo Nº 5 eta Blues Brothers.

- Animazio eszenatokia: Rock n'Roll Part II, Maitetxo, Samba de Janeiro, Condomino Mix (jaialdirako Ustekabek prestatutako potpurri bat).

## Dantzaldia

Musikariek ere koreografiak egin zituzten, "koreografia sinplifikatuak, baina dantzarienekin batera ikusgarriak, benetan ere", diote. Ikuskizuna egiteko, lau musikarik instrumentuak utzi eta Keka Dantza Taldeak utzitako erropa jantzi zuten. Dantzariak aurretik eta musikariak atzetik sartu ziren eszenatokia zegoen plazara, Sarrerako *Martxa* jotzen zutela. *Martxa* interpretatuz hartu zuen bakoitzak bere lekua eszenatokian.

Behin bertan, Julen Oruesagastik *Makil Txikia* kantuaren sarrera eman zuen saxofoi sopraninoaz. Eszenatokiaren atzealdean zeuden musikariak, eta altura txiki baten gainean dantzariak, makilak eskuan helduta. Publikoak txaloz jarraitu zuen makilen erritmoa, baina bertaratutakoen partehartzea ez zen horretara mugatu. Izan ere, hurrengo kantua *Sorginak* izan zen, eta horrekin, entzuleetako batzuk plaza-dantzara atera zituzten.

Laugarrenik, *Kontradantza* jo eta dantzatu zuten. Dantzariek ikuskizun polita eskaini zuten bertan, eta jarraian Unai Cabanzon tronpetalariak *Marmutx* jotzeko sarrera eman zuen. Ordurarte, musikariak bi hilaratan kokatuta zeuden ikuskizunaren hasieratik. Kantua jotzen hasi zirenean, atzeko hilerakoak mugitzen hasi ziren eszenatoki osoa inguratu arte. Behin eszenatokia inguratuta, musikariek eszenatokiari biraka aritu ziren, barruan dantzariek zihardutela.

Ikuskizuna amaitzeko, irteerako *Martxa* jo zuten. Eszenatokia inguratzen zuten musikariak bi hilaratan banatu eta plazatik irten ziren. Irteeran, dantzariek makilak zutik jarri zituzten musikariei pasiloa eginez. Fanfarrea plazatik irtetzen ari zela, txalo zaparrada hunkigarria jaso zuten eibartarrek.

Hobetzeko lekua badagoela ere onartzen dute fanfarrekoek: "koreografiak sinplifikatu behar izan ditugu eta, barrutik, beti ikusten da zer hobetua. Baina oso harro gaude lortutako emaitzaz, izugarrizko aurrerapausu kualitatiboa eman dugu azken hilabeteotan".

Bukatzeko, fanfarreko arduradunek eskerrak eman nahi dizkie laguntzen aritu diren guztiei: "ikuskizuna prestatzeko ezinbestekoa izan da Oier Araolazaren lana. Bere gidaritza gabe ezinezkoa izango zen dantzaldi horri ekitea. Carlos Sánchez-Barbari, partituren moldaketa ondo bezain azkar egin zuelako. Baita Pablo Zubiaurreri, partituren prestaketan bere lana giltzarri izan delako. Eta noski, fanfarreko kide ohi eta laguneri. Horiek guztiak eskatu baino gehiago inplikatu dira proiektuan, eta posible egin dute lanaren emaitza".

Dantzariak ondorengo hauek izan ziren: Olatz Arizaga, Andoni Vázquez, Leire Aldalur eta Gaizka Azketa.

## Datuak, labur

Fanfarrearen datuak

- **Fanfarre gaztea.** Bataz besteko adina: 22 urte. Mediana: 23 urte. Gazteenak 16 urte, nagusienak 30.
- **Sorrera:** 2000. Urte amaieran sortu zuten Musika Eskolako 16 ikaslek.
- **Mugarri historikoak:** 2001ean lehen emanaldiak, 2003an errepertorio propioa garatzen hasi, 2004an Gasteizko Jaiak, 2005ean Bartzelonara bidaia, 2009an Musika Eskolatik Beistegi Eraikinera pasa, 2012an lehen aldiz Donostiako Danborradara, 2014an saria Condomeko Europako banden jaialdian.
- **Condomera joandako taldea:** 18 musikari eta 3 laguntzaile.

## Prestaketa lan handiak

Jaialdian parte hartzeak lan handia eskatu die txarangakoei. Entsaioei dagokienez, urritik hona astero ensaiatu dute asteburuetan. “Ez dugu asteburu librerik izan ia-ia. Gainera, martxoan barnetegi batean eman genuen asteburu osoa entsaiatzen, eta zenbait entsaio intentsibo egin ditugu. Azken asteotako erritmoa izugarria izan da, eta azken astean egunero entsaiatu behar izan dugu. Gure entsaioetarako lokala elkarbanatu egiten dugunez beste talde batzuekin, astean zehar ezin dugu erabili eta kalean egin behar izan ditugu entsaio horiek” azaldu dute.

Baina musika eta dantzaz gain, bestelako kudeaketak ere normalean baino handiagoak izan dira: jaialdian izena ematea, informazioa frantsesez prestatzea, partiturak lortu eta prestatzea, agendak askoz gehiagotan bateratzea, erropa berria egitea, pankarta, estandartea, eta ikuskizunetarako jantzi bereziak (txapelak, betaurrekoak, korbatak…).


USTEKABE FANFARREA

Bittor Sarasketa 7, 3

20600 EIBAR (Gipuzkoa)

TLF: 649933512

ustekabe@gmail.com

www.ustekabe.com

# Ustekabe consigue en Condom el Segundo Premio Tradición

## Gana el premio “Gascon d’Argent” en el festival europeo de Bandas de Condom (Armagnac)

La fanfarre Ustekabe ha participado este fin de semana en el Festival Europeo de Bandas de Condom (Armagnac, Francia), y no ha vuelto con las manos vacías. No en vano, en su estreno en un festival de esta índole, consiguió el segundo premio por su espectáculo tradicional.

Para poder prepararlo, los jóvenes músicos eibarreses han tenido que hacer un curso express de danza tradicional vasca. Para ello, han contado con la inestimable colaboración de Oier Araolaza: “nuestra idea inicial era encargarnos sólo de la música y que colaboradores externos bailaran, pero gracias a Oier, simplificando los movimientos, vimos posible asumir nosotros mismos también las danzas, y él mismo nos las ha enseñado. No sabemos cómo agradecer toda su ayuda”, agradecen desde Ustekabe. Asimismo, afirman que el camino emprendido puede tener proyección en el futuro: “estamos repensando el formato para adaptarlo a la calle”, adelantan.

Los jóvenes músicos reconocen que el esfuerzo para acudir al festival ha sido grande, y que todo ese esfuerzo se trasladará poco a poco a su actividad normal. “Hemos sido una de las bandas más humildes del festival. La más joven a parte de las que participaban en el festival infantil, y también de las menos numerosas: 18 músicos y 3 animadores frente a bandas de más de 40 músicos. Lo hemos hecho todo con una plantilla de 21 personas y era nuestra primera experiencia en un festival. Nos hemos esforzado en hacer las cosas bien, y lo más importante para nosotros era aprovechar todo esa experiencia para progresar. Pero, además, hemos conseguido traer un premio a Eibar. No podemos estar más contentos”, celebran.

El presidente, Xabier Oruesagasti, tenía palabras de agradecimiento: “estoy francamente orgullosísimo de todos y cada uno de nosotros. Asumimos un gran compromiso hace unos meses y hemos sabido estar serios cuando las circunstancias así lo han pedido. Esta experiencia nos ha demostrado que, si seguimos trabajando, tenemos mucha guerra por dar. Tenemos fuerza para seguir con esto un buen rato. Ahora empieza la temporada alta y vamos a poder disfrutar en las actuaciones de todo el trabajo realizado”, explica.

## Cuatro espectáculos

Ustekabe ofreció en Condom cuatro microespectáculos:

- Tradicional: “Potpurri Tradizionala” (explicado en las siguientes líneas).

- Musicalidad: Manolete (pasodoble) y Piratas del Caribe.
- Escenario Principal: I Will Survive, Mambo Nº 5 eta Blues Brothers.
- Escenario animaciónj: Rock n'Roll Part II, Maitetxo, Samba de Janeiro, Condomino Mix (potpurrí preparado por Ustekabe para el festival).

## Espectáculo de danza

Los músicos, además de tocar, también hicieron coreografías. "Coreografías simplificadas, pero que junto a los dantzaris quedaron realmente vistosas", dicen. Para completar el espectáculo, cuatro músicos guardaron sus instrumentos y se engalonaron con trajes cedidos por Kezka Dantza Taldea. Los dantzaris por delante y los músicos por detrás, accedieron a la plaza a ritmo de Martxa hasta colocarse cada uno en su ubicación del escenario.

Una vez allí, Julen Oruesagasti dio, con el saxofón sopranino, la entrada de *Makil Txikia*. Los músicos ocupaban la trasera del escenario, y subidos al pódium se encontraban los cuatro dantzaris. El público siguió con aplausos el ritmo de los palos, pero su participación no se limitó a aplaudir. Y es que en la siguiente pieza, *Sorginak*, acaron al azar a varios espectadores a bailar.

Con el público animado llegó la hora de *Kontradantza*, y tras la misma, el trompetista Unai Cabanzón dio entrada a *Marmutx*. Hasta entonces, los músicos habían estado colocados en dos filas en la trasera del escenario, pero a ritmo de la música la fila trasera comenzó a desplazarse hasta formar un círculo que rodeaba el escenario, y una vez formado el círculo, todos los músicos giraron en torno al escenario mientras los dantzaris seguían bailando en la mitad.

Para acabar, se interpretó la *Martxa* de salida. A la salida de la plaza, los dantzaris alzaron los palos con los que habían bailado, formando un pasillo por el que salieron en formación todos los músicos.

Desde la fanfarre reconocen que hay margen de mejora: "hemos tenido que simplificar las coreografías y, desde dentro, siempre se ven cosas que mejorar. Pero estamos realmente orgullosos por el resultado. En los últimos meses hemos dado un paso cualitativo muy significativo hacia adelante".

Los responsables de la fanfarre quieren agradecer a todas las personas que han colaborado en los preparativos: "ha sido imprescindible la labor de Oier Araolaza. Sin su dirección inicial, hubiera sido imposible dar forma al espectáculo. También tenemos que agradecer el trabajo de Carlos Sánchez-Barba, que a la mayor celeridad confeccionó muy bien las partituras que necesitábamos; y a Pablo Zubiaurre, que ha sido clave en la preparación de todas las partituras. Y por supuesto, a los exmiembros y amigos que

noso han ayudado. Todos ellos se han implicado en el proyecto por encima de lo que les habíamos pedido, y han hecho posible el resultado de todo el trabajo”.

Los dantzaris han sido los siguientes: Olatz Arizaga, Andoni Vázquez, Leire Aldalur y Gaizka Azketa.

## Datos, en breve

- **Grupo joven.** Edad media: 22 años. Mediana: 23 años. Los más jóvenes 16 años, los más mayores 30.
- **Fundación:** 16 alumnos de la Musika Eskola crearon la txaranga a finales del año 2000.
- **Hitos históricos:** primeras actuaciones en 2001, primeras partituras creadas a medida en 2003, primeras fiestas de Vitoria en 2004, viaje a Barcelona en 2005, traslado de la Musika Eskola al Edificio Beistegi en 2009, primera tamborrada de San Sebastián en 2012, premio en el Festival Europeo de Bandas en Condom en 2014.
- **Composición del grupo que ha ido a Condom:** 18 músicos y 3 ayudantes.

## Grandes preparativos

La participación en el festival ha supuesto mucho trabajo a los miembros de la txaranga. En cuanto a los ensayos, desde octubre se ha ensayado semanalmente. “Prácticamente no hemos tenido fines de semana libres. Además, en marzo, pasamos un fin de semana entero concentrados en una casa rural. También hemos hecho varios ensayos intensivos, y en las últimas semanas hemos intensificado el ritmo para acabar ensayando todos los días. Además, como nuestro local de ensayos es compartido, los últimos ensayos los hemos tenido que hacer en la calle”, explican.

Pero aparte de la música y los bailes, los trabajos de gestión también han sido más intensos: “desde la inscripción en el festival, preparar documentación en francés, conseguir partituras y prepararlos, cuadrar agendas, hacer vestimenta nueva, la pancarta, el estandarte y trajes especiales para los espectáculos (boinas, gafas, corbatas…).

USTEKABE FANFARREA
Bittor Sarasketa 7, 3
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
TLF: 649933512
ustekabe@gmail.com
www.ustekabe.com